

**K**...eta!  
**Kitto!**

2015-XII-18

955 zkia.

# Nikaraguako umeei ikasten laguntzen

## KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

AHOLKULARITZA

- Auzo komunitaen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



C/ Toribio Etxebarria, 3 - 2º EIBAR  
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 74  
Email: keingroup@keingroup.com



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Dokorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**

erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**

elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia  
Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**

Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TFNOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Ane Eguren & Miren Zubeldia

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# Eskutitzak

## Hurrengo alea (urtekaria) abenduaren 29an buzoietan

Gabonak direla-eta, **hurrengo alea abenduaren 29an (martitzenean)** kaleratuko dugu. Eta hurrengo **-Kirolkitto!** urtarriaren **15ean** (Erregeen astean ez da alerik izango). Edozein informazio edo zorion-agur kaleratu nahi baduzue, hartu itzazue, bezar, kontuan data horiek.

Bestalde, **domekarako** deituta dauden Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak direla-eta, betiko lez ...eta kitto!-k jarraipen berezia egingo dio egunari, astelehen goizean lehen orduan kiosko, okindegi eta bestelako saltokietan doan banatuko den **Hauteskundeetako Ale berezian** kaleratzeko.

Ale horretan Eibarko emaitzak, alderdi politikoetako ordezkarien erreakzioak eta bestelako informazioa jasoko dugu.

Eta, urteroko moduan, prest daukagu datorren urterako **Gida Komertziala. Datorren astean, astelehena eta martitzena bitartean (abenduak 22 eta 23)** jasoko duzue zuen buzoian 2016ko Gida hori. Eibarko denda eta enpresak batzen ditu gidak eta, gure ohiko banaketa sistemari jarraituta, astekaria jasotzen duten guztiek izango dute bere etxean.

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**KRAKADA.-** Zeozer arrakalazten edo pitzatzen denean ateratzen duen hotsa. "*Krakadia eigin dau sapaixak*".

**KRAK/KLAK EGIN.-** Apurtu, brintzatu, hautsi. "*Jendez gaiñezka, ta azkenian krak egin dau zubixak*".

## astean esanak

"Joera dugu pentsatzeko antzinako garaiak hobeak zirela, baina ez dut uste hala zenik. Feminismoak populartasuna galdu du gazte askoren artean, eta ez dute feminismoaz ezer jakin nahi. Atzera pauso bat bada hor. Feminismoak bere burua berrasmatu beharko luke, belaunaldi berrientzat ere baliagarria izateko"

(KATIXA AGIRRE, EHUKO IRAKASLEA)

"AEBetako diasporako komunitatea ez da txikitu; esan liteke euskal komunitate egonkor samar bat badagoela, pixkanaka gorantz egin duena. Agortu dena da euskal inmigrazioa; AEBetako euskal artzainaren aroa amaitu da. Egun, azken zentsuaren arabera, 50.000 bat izango dira euskal jatorrikoak. Bada nukleo bat euskal nortasunari eusten diona, eta beste batzuek ez diote eusten. Egun AEBetan 30 bat euskal etxe egongo dira: Argentinaren ondotik, euskal etxe gehien dituen herrialdea da"


(WILLIAM DOUGLASS, ANTROPOLOGOA)

"Dosi moderatuetan okelak sustantzia elikagarri mesedegarriak eskaintzen dizkigu. Gutxi eginda jaten badugu, bai komeni dela odola hustutzen lagatzea eta ogia ez bustitzea bertan; odol hori da kaltegarria osasunerako. Arrainarekin ere kontuz, oso kutsatua dagoelako. Jatekotan, tamaina txikiokoak jatea komeni zaigu. Orain ere entzuten ditugu aholkuak esaten dutenak ez dela gomendagarria hiru urtetik beherako umeendako eta haurdun daudenentzako. Euredako kaltegarria bada, mundu guztiarendako izan beharko luke, ezta?"

(FERNANDO FOMBELLIDA, ESTOMATOLOGOA)

# MEMORIA ez da atzo, etorkizuna baino

**A**urreko astean jaso zuen Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak 2015eko René Cassin saria. Lakuako gobernuko Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkaritza nagusiak emandako sariak plataforma horrek, justizia unibertsalaren defentsaren esparruan, *“egiaren eta justiziaren bilaketan egiten duen lan indibidual eta kolektiboa”* errekonozitzen du horrela. Abenduaren 10ean Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik jasotako sariaren ondoren, auzibidea gerturatzea izango da plataformaren hurrengo erronka. Horretarako, 2016an banakako kereilak jartzen hasiko dira biktimak, krimenak gertatu ziren lekuetako epaitegietan. **JOSU IBARGUTXI** eibartarra ekimen horretako lehen lerroan dugu, Goldatu elkartean lehenengo eta plataforman orain.



**– Zer esanahi du sari horrek zuentzako? Zelan joan zen ekitaldia?**

Oso positibotzat jotzen dugu instituzioak atzetik izatea eta, batez ere, erabaki hori ahobatez hartu zutela. Ezustekoa ere izan da guretzat eta, aldi berean, lau urteko lanaren errekonozimendua. Ekitaldia ondo egon zen, Urkullu lehendakariak presoaren dispersioaren inpunitea salatzen zuenari atentzioa deitzeak hainbat komunikabidek mezua

desbideratzeko erabili izan badute ere.

Bestalde, askok euren memoriari eutsi nahi ez diotenean, oso garrantzitsua da horrelako sari bat. Jende ausartarekin egin dugu bidea. Kereila hau ez da indibiduala: batez ere, gure historia baten aurka doa, erregimen baten zitalkeriaren aurka. Milaka biktima badaude ere, orain ehundaka inplikatu ditugu borroka honetan. Ehuneko laurdena izango dira

Euskal Herrikoak eta 500 bat estatu osoan.

**– Bost urte eta erdi dira kereila abiatu zenutenetik. Nola hasi zineten?**

Plataforma honi 2012ko udaberrian ekin genion, Galdatuko bi kide -Sabin Arana eta ni neu- Madrilgo La Comuna preso eta exiliatuen taldeko beste birekin -Manolo Blanco Chivite eta Jose M<sup>o</sup> “Chato” Galante- batera. 2010ean Argentinako hiru lagun, Espainian eraildako ondorengoek, kereila jarri zuten. Fiskalak Madrilgo gobernuari galdegin zion, ea hemen zer erantzuten zuten. Helegitea zabaldu egin zen eta 2011n Argentinako bi abokatu etorri ziren hona. Baltasar Garzonek ere hartu zuen parte eta horren ondorio dira, esaterako, Scilingoren eta halakoen kondena Argentinan ere.

**– Zeintzuk dira zuen hurrengo erronkak, batez ere epe motzari begiratuta?**

2016rako hiru mailatan kokatuko nituzke gure helburuak. Alde batetik, erregu edo exhorto kanpaina egongo li-

tzateke. Urrian egin ziren lehen deklarazioak hemen eta estatura zabalduko ditugu erregu guzti horiek, eta Servini Argentinako epailearen galderei erantzun beharko diete, obligazioa baitute jaso eta hara bidaltzeko. Deklarazio horiek oso garrantzitsuak dira, baten barne hustea dakartzate-eta askotan. Gakoa dago Argentinan hasitako bidea honuntza bideratzean eta hemengo judikatura horretan inplikatzeko.

Bigarren maila batean, Servinik botatuko bi inputazio-auto daude, Madrilgo gobernuak horko extradizio eskararak ukatu baditu ere. Dozena erdi ministro izandakoak, epaileak, poliziak... 19 lagun daude hor. Europako Parlamentuan deklarazioa hartzerako etorriko direla esan du.

Eta hirugarren mailan, Euskal Herriko hainbat udaletan, lau hiriburuak tartean, onartutako kereilaren aldeko mozioak ditugu. Horrela gehiengo zabala eskuratuko genuke gure alde. Buenos Airesera egindako hirugarren bidaian,



Ibargutxi Argentinara egindako bidaiari, Adolfo Pérez Esquivel Bakearen Nobel Sariarekin eta Maiatzeko Plazako Ama eta Amamekin.

Eusko Legebiltzarreko hiru ordezkari lagundu ziguten babesa emateko.

**– Espainian gertatutakoa zertan da desberdina beste herrialde batzuetako gehiegikeriekin alderatuta?**

Herrialde askotan izan dira halakoak -hor daude Israel, Meroko, Grezia-, baina hemengo kasuan disimulatu ere ez dira ahalegindu. Estatu bakarrenetakoa izango da espainiarra Nazio Batasunaren gomendioei horrela pasatzen. Eta, argi dago, bakarra munduan diktaduratik demokraziara pasatzeko berraztertze guztiekin. Gu kartzelatik ateratzeko Aministraren Legea saldu bazuten ere, herri-mobilizazioek atera zizkiguten guri; Amnistiaren Legea beste batzuen mesederako egina dago, euren gehiegikeriengatik ez erantzuteko.

**– Zer moduz Argentinako Maiatzako Plazako ama eta amamekin izandako harremana?**

Haiena bai kuraia. Eurak erantzutea bakarrik hunkigarria da. Kristona pasatu duten arren, zelan erantzun duten ikusita, enblema izaten jarraitzen dute. Eta hainbat seme-alaba errekuiperatzea lortu dute, urte askotako borrokari eutsiz. Ondo ulertzen diogu elkarri.



Aurreko asteko egunean jaso zuen René Cassin saria Kereilaren Euskal Plataformak.

**– Gaia nazioartekotzea derri-gorrezko neurria izan dela ikusita, itxaropentsu begiruzten diozu etorkizunari?**

Bilatzen dugun gauza bakarra da egia guztia kaleratzea eta, horren ondoren, epaitu eta kondenatzea. Borondate politiko eza da hemen arazoa. Denbora aurrera doa eta erantzule asko ere hil da. Baina badugu itxaropena gauzak egin daitezkeela. Beti ere, mende-kuaren bidea baztertuta, hori delako gizakiaren alde txarrenetakoa.

**– Bidaiatu ere, inoiz baino gehiago bidaiatuko zenuen...**

Hirutan izan naiz Buenos Airesen, Bruselan beste hiru

tan, Ginebran... Euskal Herrian eta estatuan ere gertatu barik gabilta. Esaterako, bihar Tolosara noa Muñecas guardia zibilaren eskutik pasatutako dozena erdiren lekukotasuna jasotzera.

**– Badakigu ez zarela eibartar bakarra borroka horretan euren testigantza eskaintzen...**

Guk pasatutakoaren antzerakoa pasatu dutenak badira, gauza batengatik edo bestearengatik, lekukotasuna eskaintzeari erreparoa ipintzen diotenak. Animatu nahi genituzke aurreapauso hori ematera, memoria barik herri batek ez duelako etorkizunik. Askotan memoria astintzea

gogorra bada ere, horrek mesede egiten dio gizarteari.

**– René Cassin saria jasota, bidaia luzea duzue aurrean oraindik...**

Hau ez da berehala amaituko, hori badakigu. Baina aurreapausoak egin ditugu. Iruñea, Bartzelona eta Zaragozako Udalek, esaterako, onartu dute kereilatzaile gisa aurkeztea. Bestalde, alderdi politiko guztiei igorri diegu gutuna, inpunitatearen aurkako jarrera eskatzeko: hor Aministraren Legea deuseztatzea, Nazio Batuen aginduak eta gomendioak betetzea, 1936tik eratutako tribunal frankisten sententziak deuseztatzea... eskatzen dugu.

info@gerritek.net  
www.gerritek.net

**SOLUZIO INFORMATIKOAK**  
Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta  
Neurrira egindako software-aren garapena

**Gerritek**  
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

**FM** Funeraria·Ehortzetxe  
**Mugica**

<b>EIBAR</b> Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	<b>ELGOIBAR</b> Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
---	---

Bulegoa Eibarko erdialdean  
Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra  
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

**Ane Eguren eta Miren Zubeldia:**

## «Nikaraguako umeen heziketa-maila oso bajua da»

*Irakaskuntzako ikasketak amaitu berri, zer egin pentsatzen hasi eta atzerrian praktikak egitera joatera animatu ziren Ane Eguren eta Miren Zubeldia gazte eibartarrak eta, Nikaraguan irakasle modura jarduteko aukera ematen zien bekaren berri izan zutenean elkarrekin joango zirela erabaki eta hara abiatu ziren irailean. Orain egun gutxi bueltatu dira etxera eta euren esperientziaren berri izateko irrikitan, biekin elkarrizketa egin dugu.*



**- Nola animatu zineten irakasle praktikak egiteko Nikaraguaraino joaten?**

Biok egin ditugu irakaskuntzari lotutako ikasketak, batak (Mirenek) Magisteritza eta besteak (Anek) Gizarte Hezkuntza. Karrera amaitu eta epe laburrean lanerako aukera garbirik ikusten ez genuenez, zer egin genezakeen pentsatzen hasi eta Nikaraguan Gobernu Kanpoko Erakunde batekin hiru hilabetez irakasle-laguntzaile moduan jarduteko beka aurkitu genuenean, biak elkarrekin joatera animatu ginen.

**- Eta zertan ibili zarete han eman duzuen denbora?**

La Esperanza de Granada izeneko GKE-ak Granadan bertan lau eskolatan laguntzen ibiltzen da eta gu eskola horietan klaseak ematen laguntzen ibili gara, hango irakasleei laguntzen, batez ere ikasteko zailtasun gehien zuten umeekin.

**- Eta zer moduz moldatu zarete?**

Gutariko bakoitza eskola batean ibili gara, baina edozein modutan ere bientzat oso esperientzia polita izan da. Sei edo zazpi umeekin

egin dugu lan, baina adin bereko hemengo umeekin alderatuz gero ezberdintasuna ikaragarri handia da, umeek daukaten heziketa-maila oso oinarrikoa da eta irakaste-ko erabiltzen duten metodologia ez da egokiena, irakasleak ez dira bat ere didaktikoak eta, horrela, umeek nekez izango dute irakurtzen edo beste edozer gauza ikasteko aukerarik. Hortik aparte, oso ume maitagarriak dira, kanpotarrak ginela ikusi eta galdera mordoa egiten zizkiguten, hemen nola bizi garen eta beste hamaika kontu jakin nahi zituzten, asko interesatzen zitzaizkien horrelako kontuak.

**- Eskolatik kanpora, zer iruditu zaizue Nikaragua?**

Jendea benetan jatorra eta tokiak ere ederrak dira. Asteburuetan jai izaten genuenez inguruak ezagutzera joateko aprobeztatzen genuen eta, gainera, eskolako praktikak amaitu genituenean, etxera bueltatu aurretik Guatemalan bidaiatzeko denbora izan dugu. Benetan esperientzia polita izan da.

**IGELTSEROTZA OROKORREAN**

**AS-MU** 

- ERREFORMAK OROKORREAN
- PINTURA
- INPERMEABILIZAZIOA

**602 116 829**

**Radio Eibar**

CADENA  
**SER**

**104,0 FM**

*Izadi*  
**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak


San Juan, 1

Tel. 943 20 33 29


## Udaleku teknologikoa gabonetan

Udalak "Robotika" lantzeko gabonetarako antolatu duen tailerrean parte hartu nahi duten gazteek gaur izango dute izena emateko azken aukera, oraindik sei lagunentzat tokia dago eta, berez astelehenean amaitzekoa zen epea luzatzea erabaki dute. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, epe barruan izena eman duten gazte guztiak ikastaroan parte hartzeko onartu dituzte. Hala ere, azken orduan izena ematen dutenek kopuru hori gaindituz gero, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo dute abenduaren 21ean.

Udaleku teknologikoa Portalean, liburutegian egingo da abenduaren 28, 29 eta 30ean, 09:00etatik 13:00era eta gazteek Lego Mindstorms EV3 plataformarekin lan egingo dute, Doplay-ko irakasleek gidatuta. Asmo nagusia gazteen artean zientzia eta teknologiarekiko zaletasuna sustatzea da eta, horretarako, robotikari lotutakoak zuzenean eraikitzeari ekingo diote lehen unetik, robotak egiten joan ahala ikasten joateko.



Udaleku teknologikoa Portalean egingo da, liburutegian.



Irteera Bilboko Lasergunera.

## INDIANOKUA GAZTELEKUA martxa betean... gabonetan ere

Indianokua gaztelekuan asteburu biribila pasatu zuten aurrekoan. Barixaku arratsaldean telefono mugikorren inguruan berbetan jardun zuten eta, gaiarekin interesatutako gazte mordoak parte hartu zuten, saioa oso aberasgarria izan zela adierazi dute ardurdunek. Zapatu arratsaldea, berriz, sukaldaritzan trebatzeko aprobetxatu zuten eta, gazteek proposatutako errezetari jarraituta, euretako asko animatu ziren "Huesitos" tarta goxo-goxoa egitera. Eta horrez gain, Bilboko Lasergunera joateko irteeran parte hartu zutenek primeran eman zuten eguna, laser-pistola eskuan hartuta laberinto itxurako bideetan gora eta behera jolasten.

Bestalde, gabonak direla eta, ordutegi berezian, 17:00etatik 20:30era zabalduko dituzte Indianokua gaztelekuko ateak abenduaren 22, 23, 29 eta 30ean. Abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1ean, berriz, itxita egongo da. Bien bitartean, datozen egunotarako antolatu dituzten jarduerak hauek dira: eskulanak (abenduaren 26an, 27an, 29an eta 30ean) eta Play/Wii (abenduaren 27an eta urtarrilaren 2 eta 3an).



Mugikorren inguruko 2013 rako NAHAK hitzaldia.

# basquestay



www.basquestay.com  
info@basquestay.com  
606 747 756

Apartamentu baten jabe bazara, errentan eman eta diru iturri bilakatu

# gremioen gida



## ANTENAK

## AROTZAK

## ELEKTRIZITATEA

**BALATZ** c.a.  
Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista  
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

**EDER**  
**ateak**  
ATEAK, HORMA-ARMAIRUAK, TARIMAK...  
BURDINDEGIKO ARTIKULUAK SALGAI - GILTZEN KOPIAK  
EBANISTERIA - ERAKUSKETA **iraner**  
Bizkaia etorbidea, 10 (ERMUA)  
943-174925 iranercb@gmail.com 666918745

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.  
Ego Gain, 9 ac 677 51 24 62  
ego.luz@hotmail.com 630 95 73 45  
943 20 06 97

Antena instalazioak  
TDT / Satelitea  
Informatika Zerbitzua  
Sareak /Antibirusa  
Sistema Operatiboa  
**Miguel Angel Garcia**  
Mugikorra: 609 250 858  
garciamiguel@movistar.es

**SUKALDE ALTZARIAK**  
\*  
**AROTZEGIA**  
Iparragirre Anaiak  
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

943 530 356  
688 674 242  
669 934 964  
**electricidad iparelek** s.l.  
INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUA  
iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnua. 943 12 73 50  
www.trinmer.com  
**trinmer**  
TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

**ulmar**  
S.L.  
metalezko eraikuntzak  
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar  
Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

**THELECER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS  
← →  
ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA  
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 18 50  
**E.I.T.**  
AJT zihurtasuna s.l.p.  
Barrena, 6 - behea esk.



# HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu deitu 943-206776 telefono zenbakira

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-  
605 713 168 943 744 019

## GARBIKETAK

**Limpieza  
Multiservicio  
Eibar**

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

[www.multiservicioeibar.com](http://www.multiservicioeibar.com) Barrena, 21-1.F



**TREJO  
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Sorluze

*Garbiketa eta  
mantenimendua*

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobear  
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## ITURGINTZA

**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANS GROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egiguntarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**

TAILERRA: ERREKATXU, 3an  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**

[info@cristaleriaacha.com](mailto:info@cristaleriaacha.com) ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

## PINTURAK

DECORACIONES  
**AIXA**  
José Luis Iriondo

Tfnoa. eta Faxe.  
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea

Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etxerakoak  
Osagarriak

**baglietto**  
PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Erreal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 [bagliettoeibar@kaixo.com](mailto:bagliettoeibar@kaixo.com)

**MALVAR**  
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA  
OROKORREAN

BARNE eta KANPOko  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
[victor-fraiz@hotmail.com](mailto:victor-fraiz@hotmail.com)

## Maketiak jendetza batu eban

Jende mordua alkartu zan aurreko domekan Arrateko Gerra Zibileko Frontearen Interpretaziño Zentroan, Akondiako bando errepublikanuaren metrailladorekabixa izandakuaeren maketia presentatzeko ekitaldixan. Paco eta Bernardo Perez Guenaga anaixak egin daberen maketia jendiari erakustiaz gain, Arrateko aterpetxian udaberrixan zabalduetako zentroa ezagutzera emoteko egin daberen bideua eta ibilbidien osagarri modura erabiltzeko mugikorretarako sortutako aplikaziñua be aurkeztu zittuen.



Paco eta Bernardo Perez Guenaga anaixak egin dabe maketia.



*langabeturi kontratua egin detse udalak 2015ian eta, Lanbiderekin lankidetzan, hórretako 9 diruz lagundu dittue Kontrataziñorako Laguntasun programako 90.000 eurueri esker eta, hortik kanpora, beste 20 lagun kontratatu dittue udalian biharrian jarduteko.*



## Baietz 700 kiloko harrixa mugidu

Eibarko Sarek antolatuta, abenduaren 26xan, 18:00etatik aurrera "Baietz Mugitu!" izenburukua egingo da Untzagan. Programaren barruan, 700 kiloko harrixari tiraka (txiki eta haundi, neska eta mutil, danak alkarrekin) egingo dan giza-proba erronka izango da deigarrixena, baiña bestelako jarduerak be antolatu dittue (trikitilariak, bertsolariak, pintxo-potia...).

**MUGI DAITEZEN HARRIAK**



QUE SE MUEVAN LAS PIEDRAS  
ENSEMBLE DÉPLAÇONS LES MONTAGNES

17:00 **U9**  
BILBO BAIONA URTARRIL A  
PINTXOANVIERE

**Euskal presoak Euskal Herrira**



Sareko ordezkariak diñenez, "espetze politikia guretako be hori da, euskal presuak Euskal Herrira ekartzeko bidiaren erdixan ipiñi deskuen harritzar bat, baiña harrixak mugiduko dittugu, bai abenduaren 26xan eta baita urtarillaren 9xan be".

## Txistorra Eguneko sari nagusixa

Erretratuan ikusten dozuen Alberto Balanzategik irabazi dau Eibarko Txirrindulari Elkarteak azaruan, Txistorra Egunian egindako zozketako sari nagusixa: Kalitatea produktuetan gastatzeko 300 euroko txekia. Irabazliak Obereña harategiko eta txirrindularixen alkatereko ordezkariaren eskutik jaso eban sarixa. Bide batez, Txirrindulari Elkarteak eskerrak emon nahi detsez egun horretan zein bestela, denboraldi osuan laguntzen daberen guztieri.

## Gabonetarako apaingarrixak

Bixar arratsalderako Gabonetako apaingarrixak egitteko taillarra egingo dabe Armagintzaren Museuan, 17:00etatik 18:30xetara (sarrerria duan izango da) eta parte hartzera animatzen diranak Eibarko hainbat taillarretan erabilutako materixalekin (malguki, torloju, zirrindola, alanbre, soka, kartoi eta bestelakuekin) Gabonetarako apaingarriri edarrak zelan sortu ikasiko dabe.





## Hauteskundieri jarraipena eta ale berezixa

Domekarako Espaiñiako Kongresurako eta Senadurako hauteskundiak deitu dituela eta, hogeigarrenez urtengo gara kalera goizian goizetik, egunian pasatzen doazenen barri zueri emoteko asmuarekin: beste batzuetan egindakuren bidetik, egunian zihar alderdi politikuetako ordekarixekin egongo gara, botua emotera doiazien kanpaina zelan ikusi daben eta zelako emaitzak espero dittuen galdetzen. Erantzunak jaso ahala, interneten [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) helbidian sartuko dittugu esandakua, nahi dabenak irakortzeko aukeria eukitzeko. Eta mahaixak itxi eta jarraixan, kolegi-xoguztietara juango gara, mahairik mahai botuak kontatzen dittuen emaitza guztiak zuzenian jasotzeko. Emaiza guztiak ditugunian, atzera be alderdi politiko guztiakin egingo dogu berba, hórretxan inguruko inpresiñuak biltzeko eta, egunian zihar egindako moduan, hórretxek be jaso ahala gure webguriari sartzen juango gara, Eibarko behin-behinetan emaitzekin eta bestelako informaziñua-



*Aurtengo bigarren hauteskundietako datuak jaso ahal izango dittuzue asteleheneko lehen orduan.*

rekin batera. Eta interneten ez eze, hauteskundieri buruzko guztiak papelian be emongo dittugu argittara, astelehen goizian herriko kiosko eta dendetan duan banatuko daben hauteskundietako ale berezixan.

## Eibar K.E. seilluetan eta ONCE-ren kupoian



Eibar foball taldea sortu zala 75 urte betetzeko ospakizun programia sosiguz-sosiguz amaitzen doia, urte berrixan hastiarekin batera talde armagiñak 76 urte beteko dittu eta. Halanda be, urtiari agur esan baiño lehen 75. urtemugari lotutako pare bat ekitaldi berezi gehixagorako denporia egon da: aste honetan bertan, astelehenian, urteurrenari eskinduta sortu daben zigillu-markatzekua eta seillua presentau zittuen Eibarko tren geltokixan.

Eta ONCE fundaziñokuak be Eibar foball taldiari omendixa egin nahi izan detsa, taldiari eskindutako kupoia etarata. Foball taldiaren sorreraren 75. urteurrenari eskindutako irudixa atzo erakutsi eben, udaletxian egindako prentsaurrekuan. Gure herriko taldiaren omenezko kupoia abenduaren 30ian egingo dan zozketarako erabiliko dabe.

## autuan



### ETXEBERRIAREN DISEIÑUAK

Roberto Lopez Etxeberriaren diseiñuak mundu osuan gero eta ezagunaguak dira eta azken aldixan, gairera, albistegixetarako gai gero eta sarrixago be badira. Aurreko asteburuan bertan, "Mujer Hoy" aldizkariko portadan agertzen dan modeluak jantzitta dakan txanodun beroki gorri uletsua eibartarrak sortutakua da. Eta eguaztenian Etxeberriak berak estilo horretako beste beroki batzuk presentau zittuan Madrille, Barei dendan.

### MOGEL ISASIKO LOTERIXIA

Azken momentuko arazuak tartian, Mogel Isasi DBH-ko ikasliak saltzen ibilli diran Gabonetako loterixaren zenbakixa kanbixau bihar izan dabe eta zenbaki berrixan 64.020 dala jakiñarazi nahi detse erosi daben guztieri, sortutako eragozpenak barkatzeko eskatu eta emondako laguntza eskertziarekin batera.



KARMELO URDANGARIN

## Eibarko enpresen exodoa

Eibartarek ia zazpiehun urte daramatzate armak egiten, eta horri esker, langileek eta elkarteetan antolatzen ziren enpresariak, armak egiteko beharrezkoa den "egiten jakitea" (know how) ezagutu ahal izan dute.

Estatuan autarkia, hau da, autosufizientzia (beste herrialde batzuekiko mendekotasun eza) ezarri zenean, gure industriari mesede handia egin zion; izan ere, Eibarren, argi geratu izan den moduan, era guztietako ondasunak egin zitezkeen, erregimen menderatzaileak jarduerak instalatzeko ahalegina egin arren (lokalizazio industrialeko poloak). Gaur egun Eibarko ekoizpen anitza ikus daiteke Portaleko museoa.

Baina ekonomiaren globalizazioarekin enpresak beste lurralde batzuetara joatean hasi ziren, Arabara esate baterako, lurraldeen prezio merkeagoak edo soldata txikiagoak erakarrit.

Eibarko enpresen exodoa nabarmena izan da eta kuantifikatzen dihardugu. Neurri txikiagoan bada ere, Debabarreneko herrietarantz ere exodo hori gertatzen ari da gaur egun.

Iraganean, exodo horrek, Eibarko bizilagun-kopuruan ere eragina izan zuen, baina orain, kopurua, txikiagoa da, eta Ernuak, adibidez, gure herritik joaten diren enpresetako batzuk ere hartzen ditu gaur egun.

## 5.397 zenbakixak jasoko dau ...eta kitto!-ko otarra

Eguazten goizian zozketatu eben ...eta kitto! Euskara Elkarteko gabon-otar ederra, Ego-Gai-neko El Corte Inglesean. Saritutako zenbakixa



**5.397** izan da eta irabazliak abenduaren 31ra arteko epia eukiko dau sarixa jasotzeko. Bestela, epe horren barruan inor agertzen ez bada, badaezpada etara dittuen ordeko zenbakixak honetxek dira: **4.758** (sarixa jasotzeko epia urtarrillaren 1etik 15era bittartekua izango da); **10.140** (urtarrillaren 16tik 30era) eta **3.634** (urtarrillaren 31tik otsailaren 14ra). Bide batez, ...eta kitto!-k eskerrak emon nahi detsez errifak erositta lagundu dabene guztieri, "urte osuan gure jarduna aurrera etara ahal izateko ezinbesteko laguntasuna emotiaz gain, kalera urten garanian herritarren babesa sentiarazi deskuelako".

**5.397 zenbakixaren jabiak Gabon Zahar egunera arteko epia dauka otarra jasotzeko.**

## Lagun Taldekuen esker ona

Lagun Taldeko neska mutillak abenduaren 9xan Adecco fundaziñoko Sandra Movilla alkartera eta Teknikerrera bisitan jua ziran eta, ederto pasatziak gain, ez ziran esku hutsik bueltatu, Teknikerreko Mercedes Ajaren eskutik ordenagaillu bi eruan zittuen eta. IK4-Teknikerrek oparitu detsazen ordenagailluak informatikan trebatzeko erabilliko dittue Lagun Taldekuak. Pozarren hartu eben oparixa eta Teknikerrekueri eskerrik beruena azaldu nahi detse "holako opari edarra egittiagaittik".



## Artisau Azokia Zuloagatarrenian zabalik

Gaur inauguratuko dabe Eibarko XII. Artisau Azokia, iazkuari jarraituta Zuloagatarren kaleko **5. zenbakixan** dagan garajian eta gaurtik aurrera egunero zabalduko dabe, urtarrillaren 5era arte, goizez 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 21:00etara (abenduaren 20xan izan ezik, domeketan itxitta egongo da). Azokan parte hartuko dabene artisauak hamar postu ipiñiko dittue eta, horrez gain, beste artisau batzuek postu "mugikorrak" ipiñiko dittuela azaldu dabe antolatzailliak, "hau da, egun gitxiagotan egongo dira azokan".

Egunero postua zabalduko dabene artisauak Nieves Maidagan (de-

koraziñua eta birziklapena), Marta Irusta (zidarra), Arrate Espilla (artillezko lanak), Eskulan (kristalezko lanak), Ahiztak (ehungintza), Ana Orozko (bitxigintza), Miren Torrealday (artillezko lanak), Aurkene Pagalday (zidarra), Sara Peñalba (narrua) eta Izaro Orbegozo (erropak) dira. Eta postu mugikorra zabalduko dabene, barriz, Nekane (margotutako zuntzak), Artezi (tapizatuak), Vanessa Ateca (marraski eta marguak), Aittu (erropak), Mertxe (zidarra), Maria Baskaran (bitxigintza), Zindagi (ehungintza), Ixi Wood (egurra), Etoile (bitxiak), Ceramica El Unicornio Loco (zeramika), Hazi eta Hezi (umiendako ehungintza) eta beste hainbat.



# www.etakitto.eus


## berritasunez jantzita



Olentzero egun batzuk lehenago etorri da gurera, eta kolore eta ilusioz beteriko oparia ekarri digu: [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) berria. Hainbat hilabeteko lanaren ostean, webgunea itxura, eduki eta zerbitzu berriein datorkigu.

...eta kitto! Euskara Elkarteak 1992. urtean hartu zuen izen bereko aldizkaria kaleratzeko ardura. Hasieran hamabostero, eta ondoren astero, urte mordoia daramatzagu eibartarron etxeetara iristen. Urte guzti hauetan gauzak asko aldatu dira, teknologia berriak gure bizitzan sartu dira eta jadanik ezin dugu ordenagailu, tablet edo mugikorrik gabe bizi. Eibarko berriak euskaraz landu eta eskaintzeko zeregin horretan, interneten egoteak garrantzi handia dauka, eta aukera hori ezin dugu galdu. Horregatik, webgunea sasoi berrietara egokitu dugu: mugikor eta tabletetan erraz nabegatu ahal izango duzue eta zerbitzu eta eduki berriak eskainiko dizkizuegu.

[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)-ek, herriko albisteak jorratzeaz gain, Euskara Elkarteak albiste, proiektu eta zerbitzu guztien berri emango du etengabe, beti ere, erabiltzaileen parte-hartzea bultzatuz: jardueretan izena emateko aukera egongo da, iradokizunak bidali ahal izango dira, aurrekontuak eskatu, agenda kontsultatu, kexak bidali, elkarteak bazkide egin...



Euskara Elkartearen webgune berri honetan gure proiektu guztien berri izango duzue; Berbetan, Bertsolaritza, Illunabarrian, Harixa emoten, Txikitto!, Transmisioari buruzko mintegia...


### Berbetan programak atal berezia

Berbetan programara zuzenean sartu eta egiten dugun guztiaren berri izango duzue, baita zer egingo dugun kontsultatzeko aukera ere, eta interesatzen zaizkizuen ekintzetan izena eman ahal izango duzue.

Klik bakar batean informazio gehiago lortzeko edota gurekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera izango duzue. Sartu eta saltseatu! Webguneak hamaika aukera eskaintzen baititu!

### Argazki-bildumak eta bideoak

Hauxe da webguneak eskaintzen duen nobedadeetako bat. Orain arte argazki-bildumak Facebooken jartzen genituen, eta, egia esan, jendearen artean oso harrera ona izaten zuten. Hemendik aurrera, webgunean ere ikusi ahal izango dituzue. Gainera, bideoentzako atala ere egongo da.



## Iragarki laburrak, zorion-agurrak

Herriko eta euskara elkarteko albisteetaz gain, beste era bateko zerbitzuak ere eskainiko ditu webguneak, esate baterako, paperezko aldizkarian arrakasta handia daukaten "zorion-agurrak" edo "iragarki laburrak" atalak ere aurkituko dituzue. Webgunetik zeuen iragarkiak edota zorion-agurrak bidali ahal izango dizkiguzue. Eta guk, zeuen mezuak jaso bezain laster, webgunean argitaratuko ditugu. Eskelendako espazioa ere aurkituko duzue.



## Komunitatea

Herritar guztien bilgunea izateko nahiarekin jaio da **etakitto.eus**. Horregatik, **Komunitatea** atala sortu dugu. Bertan, herriko norbanako eta taldeek albisteak eta argazkiak argitaratzeko aukera izango duzue. Parte-hartzeko modua eta arauak webgunean azaltzen dira.

Komunitatearen bitartez, beraz, herritarrek sortutako informazioa irakurri ahal izango dugu. Beste modu batean esanda, berri-emaile bihurtuko dira.

## Agenda

Eibarko udalak eta herritarrek osatzen dituzten talde edo elkarteek ekitaldi asko antolatzen dituzte urte osoan. Aldizkarian astero ateratzen dugun agenda begiratzeari besterik ez dago hori horrela dela baieztatzeko. Agendak bereziko garrantzia izango du **etakitto.eus**-en. Gure herrian antolatutako ekitaldien berri izango dugu modu praktikoa eta arin batean.

Azken batean, webguneak hamaika aukera eskainiko ditu eta modu eroso eta errazean izango duzue Eibarren gertatzen denaren berri. Eibarren bizi zaretenok, eta Eibartik kanpo zaudetenok ere, gure herriko informazioa euskeraz eskuratu ahal izatea eta zeuen beharrak asetzea da gure helburua. Beraz, ongietorri **etakitto.eus**-era.

# Ongi etorri, txiki!

Webgune bat berritzea haurdunaldi bat bezalakoa izatean da: luzea eta neketsua. Sarreratzea, erditzea bezalakoa: urgentziakoa. Eta, hurrengo egun eta hilabeteak ume txikia haztea bezalakoak: lan askoak. Horregatik, ongi etorri eta zorionak etakitto.eus berriari eta haren gurasoei!

Ongi etorri, zorionak eta eskerrik asko! Eskerrik asko, aurrez, misio garrantzitsua egokitu zaizulako. Eta, jakizu berezia zarela: euskaraz mintzatzen zara eta horrek berezi egiten zaitu.

Pentsa, PuntuEUS Behatokiak jaso duenez webguneen %17k egiten du euskaraz Interneten. Askok edo gutxi den? Kanean baino zerbait gehiago bada. Euskararen Kale Erabilaren azken neurketaren arabera %13,3koa da Euskal Herriko euskararen kale-erabilera. %24ren bueltakoa da Eibarren.

Euskarazko webguneak indartsuak zarete Interneten. Egin kontu, zure munduan, Interneten, munduko hizkuntzen %5 baino

ez dago. 7.000 dira munduko hizkuntzak. Twitter, adibidez, 34 hizkuntzatan baino ezin da erabili eta euskara da horietako bat! Europako zenbait herrialdeetako biztanleek beste hizkuntza batzuetan nabigatu behar izaten dute. Imaginatzen duzu? Interneten horren indartsua izatea ez da berez gertatzen, ez da zorte kontua, zuk badakizu hori. etakitto.eus zaharrak eta euskara duten gainerako 16.558 webguneek egindako lan aktiboak kokatu du euskara gainerako hizkuntza handien mailan. Izan ere, Internetek aukera ematen du.

Lekukoa hartzea egokitu zaizu, baina ez kezkatu. Internetek aukera ematen dizu, txiki, euskara gainerako hizkuntza handien mailan kokatzeko. Aukera ematen dizu asantean behin beharrez minutuero eibartarrentzat sartzeko. Aukera ematen dizu kontuak kontatzeaz gain lagunen kontuak jaso eta zabaltzeko. Aukera ematen dizu lagunak elkartzeko. Eta, lagunak zoriontzeko! Edonoiz, edonon.

Aukeraz beteriko munduan jaio zara, txiki. Ikasi zure aurrekoaren esperientziatik; baina, ez dadila izan muga. Bizi anbizioz, gauza handiak egitera zator!

Eta, eibartarrok ez dezagun aukera galdu; lagundu diezaiozun txiki honi handi egiten. Aukera dugu, egunero, internet bidez euskaraz herrian gertatzen den guztia jakiteko; eta, guk geuk kontatzeko. Aukera dugu etakitto.eus komunitatean aktibo izan eta gure ahotsa entzun arazteko. Aukera dugu noren etxean eta zein hizkuntzatan eztabaidatzen dugun erabakitzeke: jarraitu dezakegu Zuckerberg-en etxean, gaztelaniaz eta hala moduz, hari guri buruzko informazioa oparitzen hark odolkiak bailiran saldu dezan; edo, egin dezakegu gure etxean, gure komunitatean hitza hartuz.

Eibartarrentzat erdia gara euskaldunak: 14.000 ama eta aita jaioberriarentzat. 14.000 lagun jaten eman, zaindu, irri egin eta zurekin jolasteko. Ongi etorri, txiki.

**Lorea Arakistain**  
PuntuEUS-eko  
komunikazio arduraduna



## Zela aldatzen diran gauzak!

1992xan ...eta kitto alkartia egitteko alkartu giñanian, ordenadoriak gure bizitzetan kontu arraruak ziran. Baten batzuek bazeken biharrrerako, baiña ez danok. Etxian, iñor be ez, esango neuke. Eta eukitta, sarritan, gehixago erabiltzen zan idazteko makiña moderno leztxe, ez besterik. Internet zer zanik be ez genkixan!

Poliki-poliki sartu ziran honek trepetxuok geure bizitzan eta oin ezin dogu imajinatu ze litzaken konexiño barik bizitzia. Ez dot esango zelan kanbixau deskun gauzak egitteko modua, zeuek be neuk baiño hobeto dakizuelako. Pentsatzen jartzen bazarie hamaikatxo desbardintasun topauko dozue.

Geu be kanbixau gara. Asko teknofobuak giñan. Konfesauko detsuet: bildurra emoten zeztan ordenadoriak. Hankia sartzari netsan bildurra, zeozer txarto egin eta dana hondatzia edo galtzia. Zela aldatzen diran gauzak, kamarada! Oin friki izatetik gertuago nago.

Tira, Amamakipuleta ipoiñak alde batera lagata, kontau gura dot nere eritxian euskaldun euskalzaliori teknologixa barrixak ekartzen deskuezen on guztiak; izan be, dana da biharrezkua gure komunidadia sendotzeko, horixe da, hain zuzen be, euskera alkarte baten lelehengo pausua: alkarren barri izatia, existitzen garala jakitzia. Eta horretan internetek aukera zoragarria emoten desku.

Horretaz aparte, produkziñua aittatu gura neuke. Zenbat aukera dittugun sarian, ezin dogu ahaztu iñoiz ez dala hainbeste idatzi euskeraz, horrek dakarren indar guztiarekin. Papelezko formatu klasikuen onduan, blog mundua be badakagu, (ez ahaztu eibar.org blog komunitate eibartarra izan dala lelehengo komunitate euskalduna, eta hamaika urte (bai, 10+1) daroiazela ziber-espazian). Blogak esparruak zabaldu dittuez, sekula erabili bako gaixak jorratu diralako, eta edonori aukeria emoten detsalako, bai idaz-

**Leire Narbaiza Arizmendi**  
euskara irakaslea  
eta blogaria



teko bai irakortzeko, munduko edozein tokittan. Dakagun testu kantidadia itzela da, eta haunditzen dabil egunetik egunera, bizittasun seiñale.

Zer esanik ez, sare sozialak emoten deskuen aukeria, Twitterrek esaterako. Euskaldunok alkarren barri eukitziak gain, alkarren arteko komunikaziñua be errezten dau. Sarian gagozen euskaldunen arteko loturia esutu eta indartzeko balio dabelako. Gero, Euskal Herrixa hain txikixa danez, edozein tokittan topau zeinke ezagun hori! Horretara, ezagutza "erreal" be izan leike.

Horregaittik, asko pozten nau, ...eta kitto-k emon daben pauso honek. Bazan ordua! Dana ondo egitten bada, web erreferentia bihurtu bihar da, komunikabide erdeldunen aurretik. Eibarren edozer gertatzen dala be, eibartarrok eukiko dogu nora jo, eta euskeraz. Zorionak eta bide ona izan deizuela!

## Asko pozten naiz eibartarreatatik

Hilabete honetan Gaztezulo aldizkari eraberitua aurkeztu dugu. Eta webgunea 2013an berritua genuen arren, atari digitala ere goitik behera aldatu dugu. Mundu digitala ziztu bizian aldatzen doa, azken urteetan asko azkartu den kaleko bizitza bera baino azkarrago, eta, ondorioz, webgunea momentuko beharretara egokituta izatea ezinbestekoa da. Horregaittik, ...eta kitto!ko lagunek eurak ere lan horretan ari zirela esan zidatenean asko poztu nintzen, eibartarrek asko irabaziko duzuelako.

Alde batetik, gailu mugikorretatik egiten den informazioaren kontsumoa etengabe hazten ari da, eta webgunea gailu horietarako egokituta izatea hil ala bizikoa da. Pentsa, gaztezulo.eus atarian zer bait irakurtzea oso zaila zen webgunea egokitu dugun arte, eta hala ere, trafikoaren %20a baino gehiago ze-

torren telefono eta tabletetatik! Alde horretatik ...eta kitto!k emango duen jauzia itzela da, eta eibartarrok eguneko edozein momentutan modu eroso eta errazean izango duzue herriko gertaeren berri, telefonoan bertan.

Era berean, ezin dugu ahaztu ...eta kitto!k urtetik urtera irabazten dituen irakurle gazteak aro digitalean hezitakoak direla, eta horiekin beharrezkoa da euren espazioan aritzea. Eta gazte sentitzen direnak! Denok dugu-eta inguruan smartphone berriarekin txoratuta dabilen aiton-amonarik!

Webgune berrian bada indartuta aterako den eragile nagusi bat: Komunitatea. Hau da, Eibarren kultura, kirola, aisialdia edo bestelako alorretan lanean ari diren elkarte zein norbanakoek berri-emaile izateko aukera izango dute orain. Eta hori ez da edonork

**Aitor Abaroa**  
Gaztezulo aldizkari-  
kuzendaria



duen aukera. Informazioa gero eta kontrolatuagoa dagoen garai honetan, ...eta kitto!k herritarren esku jarriko ditu bere baliabideak, informazioa demokratizatuko du. Baliau eza-zue aukera eta hartu bozgoragailua!

Amaitzeko, ez ditzagun ahaztu herritik kanpo daudenak: ikasketak Eibartik zein Euskal Herriatik kanpo burutzen ari diren gazteak, lanagaitik aldi baterako erbesteratuak edota bizitza hamaika konturengaitik etxetik at bizi direnak. Norberari halakorik gertatu arte ez da herrimina zer den benetan jakiten, baina gertatzen zaizunean, tokiko komunikabideen atari digitalak bihurtzen dira egunero tarte batez herriko plazara begiratzeko leiho.

Hala bada, zorterik onena ...eta kitto!ri ibilbide berri honetan, eta zorionak eibartar guztioi!

## Astekariaren aurpegi berria

Eskuartean daukazun aldizkariari aurpegia garbitu eta freskotasuna eman nahi izan diogu. Kanpoko itxura aldatzeaz gain, atal berri batzuk sortzeko une egokia zela pentsatu dugu. Karikaturak eta Komikiak kaleratuko ditugu hemendik aurrera, eta "Gaztekitto" atalean ere kolaborazio berriak aurreikusten ditugu. Ale honetan, Gaztelekuari buruzkoa ateratzen da eta hurrengoetan berritasun gehiago izango dira. Horretaz gain, inguruko herrietako agenda gehitu dugu eta astero kolaboratzaile baten ekarpena izango dugu.



Idurre Iriondo eibartar gaztearen komikiak ikusi ahal izango ditugu ...eta kitto!n. Bere lehenengo lana 11. orrialdean ikus dezakezue.

### «**TUTULUMENDIK energia asko eta lotsa gutxi dauka**» (Idurre Iriondo)

**Idurre Iriondo** eibartar gaztearen kolaborazioa izango dugu hamabostean behin. Arkitektura-ikasketak amaitzen dihardu eta bi urte eman ditu Ainara Azpiazurekin komikia eta ilustrazioa ikasten. Aita margolaria du Idurrek eta txikitatik marraztea gustatu zaio. Horregatik aspaldi zeukan ...eta kitto!rako komikiak egiteko gogoia.

Tutulumendi izango da bere komikietako pertsonaia. *"Tutulumendi neska bat da. Gazte itxura dauka baina nagusiagoa ere izan daitekeelako ile txuria gehitu diot. Energia asko dauka, eta lotsa gutxi"*, horrelakoa da Idurrek sortu duen pertsonaia, baina *"Tutulumendi ez da bakarrik egongo, komikietan Eibarko jende mota desberdina nahastea pentsatzen dut. Marrazketa umorera bideratu nahi dut. Ironia eta kritikotasuna sartu daitezke umorean eta asko gustatzen zait"*.

### «**Kale-izena hartu duten pertsonaien KARIKATURAK egingo ditugu**» (Leire Kareaga)

Aldizkariaren diseinu berriari bueltak ematen hasi ginenean arlo grafikoari garrantzi handiagoa ematea bururatu zitzaigun. Dibujo eta Pintura Eskolako **Leire Kareaga** irakaslearekin harremanetan jarri ginen eta, bere ikasleekin elkarlanean, aldizkarirako zeozer egitea eskatu genion. Leire eta bere ikasleak ideari bueltak ematen hasi ziren, eta, azkenean, herriko historian zehar protagonista izan ondoren kale-izena hartu duten pertsonaien KARIKATURAK lantzea erabaki dute. Leireren esanetan, *"aurtengo ikasturteko gaia giza gorputza eta erretratua izan da, eta horregatik aproposa iruditu zaigu karikaturak lantzea. Ikasle guztiei eskaini diet aukera eta azkenean gazte eta helduekin talde polita atera da. Taldean neska eta mutilak daude eta, egia esan, ilusio eta interes handiarekin dabilta karikaturak egiten"*.

Karikaturekin batera, pertsonaiaren datu biografikoak ere kaleratuko dira: *"Oso didaktikoa izango da, gauza asko ikasiko dugu. Interneten, batez ere egoibarra.eus-en, datuak hartzen ditugu eta zailena argazkiak lortzea izaten da, batzutan aspaldiko pertsonaiak baitira"*, azaldu digu Leirek. *"Marrazkietan pertsonaiaren lanbidea zein izan zen ere nabarmenduko dugu: armagileak, artistak, politikoak, idazleak, irakasleak... denetik izango dugu"*.



Leire Kareagaren ikasleek egindako karikaturak izango ditugu datorren astetik aurrera ...eta kitto!n.



# Eibarko HERRI-KIROLA errepasatzen

## HARRI-JASOTZAILEAK

**Justo Gallastegi:** Eibarko harri-jasotzaile indartsuena. Miguel Gallastegi pelotariaren anaia. 1963an, 54 urterekin, Eibarko zezen plazan 21 urteko Urtainen kontra jokatu zuen. Gallastegik 166 kiloko harri kubikoa jaso zuen (kubikoa harririk zailena da); Urtainek, geroago boxeolaria izan zenak, 175 kilokoa altxatu zuen.

**Dioni Kortina:** Eibarko inork jaso ez duen 200 kilokoa (errektangularra) bizkarreratu zuen, bigarren saialdian, Ipurua kiroldegian 1997ko maiatzaren 24an.

**Luis Lopetegi "Agerre":** Berez azpeitiarra, Eibarrera ezkondu zen. Jaietako erakustaldietan hartzen zuen parte.

**Roberto "Katillu":** Plazara irteten ez bazuen ere, Gallastegiren harriak jasotzen zituen kortan.

**Nicolas "Altzu", San Roman osaba-ilobak, "Italia"** -hau kale-tarra zen eta Frantziara joan zen gero-, **Mandiola, "Nebera", Fa-cundo Arrazola, Amazabalegi eta Arikitxa.**

## AIZKOLARIAK

**Ernesto Ezpeleta "Bihurri":** Perimetro handiko enborretan espezializatutako aizkolaria, honako munduko markekin: 5 m perimetroko enborra (3h07'48", 4.797 aizkorakada); 3,40 m perimetroko enborra esku bakarrez (2h09'35"); 3,10 m perimetroko enborra esku bakarrez (1h39'45", 3.850 aizkorakada); 3 m perimetroko enborra esku bakarrez (1h38'39", 3.163 aizkorakada); 2,52 m perimetroko enborra esku bakarrez (22'21"). Horrez gain, 4,20 m perimetroko enborra (2h22'45") eta 3,50ekoa (50'20"). Bikoteka Bizkaiko txapelduna izandakoa dugu.

**Pedro Egiguren "Ixxua":** Esku batekin onena. 40 urterekin 30ekin baino sasoitsuago izan zen. Marka onena 1967. urtean lortu zuen, 40 urterekin. Lorenzo Mitxeleneri irabazi zion Eibarren, 50 ontzako sei enbor eta 72 ontzako beste bi 29 minutu eta 40 segundotan moztuta. Bastida kaletarrak apostua irabazi zion.

**Jose Atxa "Gaiñeko" eta Jose Ariz "Maltza":** lehenak irabazi zuen euren artekoa.

## GIZON-PROBA

**Patxi Azpitarte "Abontza":** Benetan indartsua. 1943an, zezen plazan, Aulestiko Juan Uriarte "Kobaren" kontra 3.000 kiloko harrarekin jokatu zuen. Azpitartek 8 metro eta 12 zentimetro egin zituen. "Kobak", baina, 28 minutu eta 12 segundotan tapatu zuen Abontzak egindakoa. Izan ere, Abontzak mingainean zauria egin zuen haginekin.

**Juanito Zuluaga "Milaflores":** 1939an 104 kiloko burdina igo zuen Estaziotik Urkoraino. 250 pezeta zeuden jokoan. 12 ordu eman zioten igotzeko, baina hiru ordu baino ez zituen behar izan. Bide motzena, baina aldatuena, hartu zuen. Abarketekin igo zuen Urko puntaraino.

2002ko abenduaren 14an 6 ordu eta 21 minutu behar izan zituen **Inaxio Arregi azpeitiarrak** 104 kiloko burdina Urkoraino eramateko. Ez zuen lan erraza izan eta proba amaitzeko erakutsi zuen adorea atentzioa deitu zuen berarekin izan ziren ikusleen artean. Haren jarduera ikusita, izan ziren 63 urte lehenago Iñaki Zuloagak egindakoa zalantzan jarri zutenak. Hala ere, homologatutako marka bakarra Arregirena da eta azken hamahiru urte hauetan beste inor ez da ausartu halakorik egitera. Burdinezko "opari" horrek 2'25 metro luze ditu, 15 zentimetro zabal eta 5 zentimetroko loditasuna.

## TXINGALARIAK

**Patxi Azpitarte "Abontza":** Euskal Herriko onena txingekin. Gerra ostean, gose denboran, sekulako markak egiten zituen. Inork



Juanito Zuluaga



Agerre



Inaxio Arregi



Ibargain



Bihurri



Justo Gallastegi



Kortina

ezin zion irabazi eta, hori dela-eta, bikoteen kontra ekin zion. Mar-kinako Amazabalegitar anaiei eta Ermuko Ormaetxeatar anaiei irabazi eta gero, inor ez zen bere kontra ausartu.

## IDI-PROBAK

**Santiago Astigarraga "Ibargain":** Inguruetako onena izan zen 1930-1940 bitartean.

**Julian Laskurain "Amazabalegi":** Euskal Herriko karreterorik onena 1938tik 1950era arte.

**Beña baserriko id-bikotea** onena izan zen 1950etik 1960ra. Geroago **Altzubarren** izan zen nagusi.

## AHARI-JOKOAK

**Domingo Oteizaren "Pepete"** aharia nagusitu zen XX. mendearen lehen hamarkadan eta **Arikixaren "Indurainek"** irabazi zuen Eibarko zezen plazan jokaturako azken borroka. **Arikitxa, Katillu, Gizastu...** izan ziren azken hazileak. Bestalde, Agiñaspi taberna herri-kirolaren katedrala izan zen hainbat urtetan.

## Tueros eibartarra nagusi Euskadiko golf-txapelketan

Aurreko asteburuan amaitu zen V. Euskadiko golf P&P txapelketa eta Oñatiko Ireloren golf-eskolan jokaturako probako scratch eta handicap modalitateetan Juan Luis Tueros eibartarrak domina biak jasozituen, Luis Arregi arrasatearra lagun zuela.



Eibartarra modalitate bietan irabazitako dominekin.



Lehenengo edizioan parte hartu zutenak Deportiboaren aurrean hasi aurretik.

## Gabon Trail-aren bigarren edizioa egingo dute hilaren 24an

Kalamua Korrikalari Taldeak, iazkoari jarraituta, Gabon Traila antolatu du berrito. Klub Deportiboa izango da irteera eta helmuga. Goizeko 08:30ean hasiko dute 13 kilometro eta erdiko proba, "zailtasun gutxikoa" antolatzaileen ustez. 620 metroko desnibela izango du eta hiru ordutan amaitzeko modukoa da. "Ez dago zertan korrika egin ibilbide guztia", diote proba prestatu dutenek eta, aldi berean, jendea parte hartzera animatu nahi dute. 728 metroko Azkonabitza izango da ibilbideko punturik garaiena.

## Avia Eibar Rugbya garaile lehen itzuliko azken partiduan

Bigarren zatian jaun eta jabe izan ziren Pello Urkidiren mutilak eta A Coruñaiko CRAT gaingitzeko gauza izan ziren. Atsedendian 5-20ko emaitza erakusten zuen markagailuak, baina hala ere jokoa guztiz aldatu zuten bigarren zatian eta galziarrak baino gehiago izan ziren. Lehen zatian ere ez ziren txarto moldatu eibartarrak, baina azken 10 minutuak ahaztekoak izan ziren. Garaipen zail horrekin (27-23), eibartarrek sailkapeneko erdialdean finkatzen dira: 7. postuan daude egun, 22 punturekin. Bihar Unben Universidad de Burgos liderra hartuko dute 15.30ean, zaletuen laguntasuna beharko duten neurketan. Bestalde, 16 urtetik azpikoek taldeak garaipen bikaina eskuratu zuen Gastediren aurka (33-29). Gasteiztarrek gogor egin zuten aurre, baina makiletara ostikadetan eibartarrek erakutsitako trebetasunak garaipena eman zien. Durango izango dute hurrengo aurkaria.



Seniorrek talde-jokoa erakutsi zuten. (DIEGO DOLAN)

## Lilatoirako taldea sortzeko asmoa

2016ko Lilatoia martxoaren 6an jokatu da Donostian eta, ohi denez, bost kilometro beteko dituzte parte-hartzaileek, goizeko 11.00etan hasita. Martitzenean zabaldu zuten izena emateko aukera eta, jakinda hiru talde handienek saria jasoko dutela, eibartarren artean taldea sortzea erabaki dute; horretarako, "taldearen izena" jartzen duen tokian interesatuok "Eibar" jartzearekin nahikoa izango duzue.



## Eibarko Kirol Sariak hilaren 31n

Urtero egiten dugun moduan, astekari honek Eibarko Kirol Sarien beste edizio bat antolatu du urtearen azken egunerako. Eguerdiko 12.00etan hasiko den ekitaldian herriko kirol-taldeen eta kirolarien lana errekonozituko da beste behin eta kirol bakoitzetik aukeratutakoek saria jasoko dute. Ekitaldia, azken bi urteotan moduan, Coliseoan egingo da.

## Binakako pilota txapelketa 25ean

Altuna III.a modako aurrelariak Astelenan jokatu du abenduaren 25eko eta urtarrilaren 1eko jaialdietan. Bietan ere David Merino lagun duela atzeko koadroetan, Artola-Albisu eta Martinez de Irujo-Rezusta bikoteei egin beharko diete aurre.



## Ekialdeko Tribuna eraikiko dute

Azaroaren 28an inauguratu zen Iparraldeko Tribunarekin Eibar FT-k amaitutzat eman du Ipurua Taillarra proiektuaren lehen fasea. Hurrengo ekimena Ekialdeko Tribuna eraikitzea izango da, behin Liga amaituta maiatzean ekingo zaiona. Horretarako, klubak proiektua gizarteratzea erabaki du eta astelehenean egin zuten lehenengo bilera informatiboa Ipurua inguruan bizi diren biztanleekin. Eibarrek, bestalde, Atxabalpen entrenatzeko duen bigarren zelaia inauguratu zuen martitzenean. Horrez gain, Gabonetako Campusean aparte hartzeko epea luzatu egin dute eta gaur izango da izena emateko azken eguna.

## Aurrepauoa waterpoloan

Azken jardunaldian Portugaleteko Nautica B taldeari 18-11 irabazi eta gero, Urbat-Urkotronik taldeko seniorrek Euskal Herriko 1. mailari eusteko urratsa eman dute. Alain Moyak eta Jurgi Sologaistiak gidatuta, Eibarko taldeak nagusitasuna erakutsi zuen partidu guztian. Jubenil mailako taldeak garaipen ona lortu zuen Oiasso Bidasoaren aurrean (8-9) eta kadeteena 26-5 nagusitu zitzaion CD Fortunari.



## Elorrioren mendiko denboraldia agurtzen

Autobusa bete zuten Eibarko Klub Deportiboko mendizaleek egitarauko azken jardunaldia bizitzeko. Horrela, 55 lagunek egin zuten Elorrio-Intxorta-Elorrio ibilbidea, Argiñetako hileritik pasatuta. Mendi-ibilbidea amaituta, autobusean tokirik izan ez zuten beste mendizale batzuk izan zituzten lagun denboraldia amaitzeko San Agustín auzoko Narru jatetxean egindako bazkarian.

## YERAY LAMARIANO (eskubaloia):



**“Min hartu nuen Arrate desagertu zenean”**

18 urte zituenean irten zuen Eibartik eta, ibilbide luzea egin ondoren, 32rekin unerik onenetakoan dago. Galiziako Frigoríficos Morrazo talde apala Asobal Ligako hirugarren postuan aurkitzen da, neurri handian Eibarko atezainaren lanari esker. J.D. Arrate eskubaloi taldetik irtenda, Leongo Ademarren, Irungo Bidasoan, Vigoko Academia Octavion, Antequeran, Valladoliden eta berriro Ademarren jokatu du Lamarianok aurten Cangaseko taldearekin fitxatu aurretik. Valladolidera ezkondu da dugu eta, gurera etortzeko aukera handirik ez badu ere, gabon bueltan hemen izango da berriro lagunekin afaltzeko.

**- Zer asmo duzu denboraldi honetarako? Europara bai?**

Morrazok inoiz egin duen denboraldirik onena dihardugu egiten, orain arteko marka guztiak hautsiz. Taldeak ez du inoiz hainbeste neurketa irabazi jarraian eta gozatzeko unea da. Dena dela, aurten ere sailkatuta geunden Europan jokatzeko, eta datorren denboraldian ere hor izango garela uste dut; bide horretan goaz.

**- Noiz arteko kontratua duzu? Ez zinen erretiroan pentsatzen hasiko?**

Ekainean amaitzen zait kontratua; bi-hiru ekipo kenduta, beste guztien kasuan ezin da epe luzera begiratu. Bestalde, sasoiaren nago eta eskaintza-eskaeraren arabera jarraituko dugu edo ez. Dena dela, familia da lehentasuna eta argi daukat ez naizela Poloniara joango. Emaztea Valladolidekoa da eta han dut etxebizitza.

**- Hain sasoiaren egonda, daukazun esperientzia oso baliagarria izan daiteke, ezta?**

Batez ere atepan jokatzeko, esperientzia inoiz ez dago soberran. Gainera, ekaitz perfektua bizitzen gauden honetan, laga diezaiozun olatuari jarraitzen.

**- Baduzu markatu zaituen atezainik? Lana eman dizun aurkari goleatzaileak?**

Sierra eta Casper taldekide izanda, asko ikasi dut eurengandik. Bestela, Barça-n eta, batez ere, Celjen jokatu zuen Peric-ekin geratuko nintzateke. Jokalariei erreparatuta, Stefansson irudituzi zitzaizkidan berezia: zazpi metrotik hain segururik ez dut ezagutu.

**- Gutxi iraun zenuen Arraten. Zelan hartu zenuen klubaren desagertapena?**

Bai, gazte irten nintzen taldetik, Arratek berehalako errendimendua eskainiko zion atezaina behar zuelako. Gero, Arrateren egoera Valladoliden bizitzea ere egokitu zait, eta asko sufritzen duzu. Arraterenak bereziki min eman zidan tartean lagunak ere bazirelako... Ez zen eskubaloia bakarrik galtzen zena.



Yeray Urko bere semearekin.



**JOSU OZAITA**  
(antropologoa):

## "Halloween horren arrotza ez dela erakutsi nahi dugu"

Aurreko astean eman zuten ezagutzera 2015eko Juan San Martin beka Jaime Altuna eta Josu Ozaita antropologoei esleitu dietela, Halloween edo Animen Gauaren ospakizunen inguruan Euskal Herrian eman den bilakaera aztertzeko proiektuari esker. Ikerketa egingo duten antropologoek sasoi batean jai hori ospatzen zutenen esperientzia eta bizipenak bildu nahi dituzte, baina batez ere gaurko haurren begietatik eta diskurtsotik fenomenoaz aztertzeko interesa dute eta bekaren 9.000 euroak ederto etorriko zaizkie ikerketa egiteko.

### - Zergatik aukeratu duzue horrelako gaia ikerketarako?

Azken urteotan Halloween jaiaren inguruko ospakizunek geroz eta presentzia handiagoa hartzen dihardute, batetik AEB-ek gugan izandako eraginaren ondorioz eta, horrekin batera, umeen artean oso erakargarriak diren ezaugarriak daukan jai delako. Mozorrotzea, gaua, beldurra... horiek guztiak erakargarritasun handiko elementuak dira umeentzat eta, beraz, jaiak pozik ospatzen dute. Baina gurasoek jaiak bizitzeko modua oso bestelakoa da, kanpotik ekarri duten jaiak dela sentitzen dute, askok atzeritik inposatutako ohitura dela pentsatzen dute eta, hori dela eta, umeak ospatzen ikustean ez dute jakiten horren aurrean nola jokatu.

### - Gehienok atzeritik datorren jaiak dela pentsatu arren, bestelako iritzia duenik badago...

Bai, hala da, Halloween jaiari lotutako ospakizunak gure artean hedatzen joan diren heinean, azken urteotan Oier Araolaza eibartarrak lan handia egin du orain dela 100 urte gure aitona-amonek Animen Gaua ospatzen zutela jaso eta zabaltzen. Besteak beste, baserrietan-eta Halloween-en pareko ospakizunak aspaldiko kontuak dira, beldurra eragiteko asmoz kalabazetan kandelak ipintzea eta horrelakoak hemengo ohitura zaharrak dira eta azken urteotan horrelakoak berri ematen dihardu bere blogaren bitartez.

### - Nondik nora jotzeko asmoa duzue zuen ikerketan?

Alde batetik zaharren testigantzak jaso nahi ditugu, baina batez ere hurrekin egoteko interesa daukagu, beraien bizipenak entzun eta jaso nahi ditugu. Eta, horrekin batera, 20 urte bete dituen Mutrikuko Gaba Beltza eta beste hainbaten inguruko behaketak egiteko asmoa dugu.

### - Eta ikerketa amaitzean, egindako lana zertarako erabiltzea gustatuko litzazuke?

Guraso, hezitzaile eta beste askok gaur egun bizi duten deserosotasunari aurre egiteko baliagarria izan daitekeela uste dugu, hau da, ospakizuna horren arrotza ez dela jakinda jaiaren aurrean nola jokatu argiago izango dutela pentsatzen dugu.

## Gluglu taldearen "Txanogorritxo"

Gluglu Producciones-en eskutik ailegatuko zaigu "Txanogorritxo" umeendako antzezkiak Coliseora, abenduaren 28an, 17:00etan (5 euro). Galder Perezek zuzendutako lanean Olatz Ganboa, Lander Otaola, Mikel Losada, Mari Cruz Melgosa, Diego Perez eta Ylenia Baglietto eibartarrak jardungo dute taula gainean, Txanogorritxori buruz beti kontatu diguten ipuinarekin zerikusi gutxi duen bestelako istorioa kontatzen.



## Bertso-saioa Akara tabernan

Abenduaren 26rako bertso-saioa antolatuko dute Akara tabernakoek. Emaldia 19:00etan hasiko da eta lau bertsolari arituko dira Ion Martinez gai-jar-tzailearen aginduetara: Izar Mendiguren audioarra, Gemma Urteaga beasaindarrak, Manu Goigana irundarra eta Aimar Goenaga eibartarra.



## Erakusketa berria Topalekuan

Alberto Ramirez eta Jon Errazu eibartarrek "Abstraccion" izenburuko erakusketa zabalduko dute gaur Topalekuan. Urtarrilaren 3ra arte ohiko ordutegian egongo da lanak ikusteko aukera: astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

## Erakusketa bikoitza Portalean

Urteroko moduan, Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek erakusketa kolektiboa antolatu dute Portalean gabonen bueltan. Urtarrilaren 11ra arte Oscar Baglietto, Jose Vila, Jose Luis Irigoien, Pedro Arriola, Jose Ignacio de Castro, Bakarne Elejalde, Jose Valderrey, Juan Antonio Palacios, Enrique Lorenzo, Iñaki Campos, Zigor Astigarraga, Manuel Sanchez, Fernando Retolaza, Juan Manuel Lucena, Enrique Albigesti, Fernando Alonso, Virginia Arakistain, Einer Rodriguez, Jon Jimenez, Juan Ignacio Aizpurua eta Mikel Urionaguena, Deporreko argazkilarien lanak ikusteko aukera egongo da Portaleko erakusketa aretoan, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Eta Deportiboko argazkilarien lanekin batera Durangaldeko artistenak ere ikus daitezke aurreko barixakuan zabaldu zuten erakusketan.



## Trio Medianoche zuzenean

Gaur 20:30etik aurrera Trio Medianoche taldearen kontzertua hartuko du Coliseo antzokiak. Pedro Bartrak (lehen ahotsa eta gitarra), Bernardo Aguilerak (bigarren ahotsa eta "requintoa") eta Jesus Maria Bastidak (hirugarren ahotsa eta gitarra) 2012. urteko martxoan sortutako hirukoteak, bere betiko estiloari jarraituta, gaurkoan ere Eibarren horren maiteak diren Hegoamerikako doinuak eskainiko ditu, boleroak, balsak eta ranxerak tartean direla. Sarrerak 12 euro balio du eta emanaldiaren aurretik antzokiko leihatilan erosteko aukera egongo da.



## Amalurrarekin gozaten

Ederto ibili ziren aurreko asteburuan Pirritx, Porrotx eta Marimotzen "Amalur" ikuskizun berria ikustera joan ziren ume eta nagusiak eta euretako batzuk taula gainera igo eta pailazoekin batera abestu eta dantzaz egitera ere animatu ziren.

## Erakusketa berria Untzagan

Abenduaren 22ra arte Untzagako jubilatutako etxeko jostintza taldeko andrekin egindakoak ikusgai egongo dira jubilatutako etxeko erakusketa-aretoan. Aurten josi dituzten gauzak Eibar foball taldeari eskainitakoak dira eta ikusi nahi dituenak horretarako aukera izango du astebarruan 19:15etik 21:15era (eguztaztenetan izan ezik, itxita egongo delako) eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

## Bakarne Elejalderen argazkiak

Klub Deportiboko Argazki Taldeko Bakarne Elejaldek "Disenuak" izenburuko erakusketa ipini du ikusgai El Ambigú tabernan. Hilabete osoan, 31ra arte egongo da argazkiak ikusteko aukera.



## Erakusketarako argazkiak salgai

Iñaki Campos argazkilaria erakusketa bi izango ditu martxan abenduaren 31ra arte: Portalea tabernan "Metronomos" izenburuko eta Ez Dok tabernan, berriz, rock-taldeen argazkiek osatzen dutena. Ikusgai egoteaz gain, erakusketa bietako argazki guztiak salgai daude eta, norbaitek erostea nahi izanez gero, shootemallphotography@gmail.com helbidera idatzi dezake, egilearekin kontaktuan jartzeko.



## Otegi askatzeko kantua

'Free Otegi eta Guztiak Kantuz' kanpainak Euskal Herriko hainbat musikari, abeslari eta artista batu ditu, guztien artean abesti bat grabatzeko eta mundu osoan zehar zabalduko den bideoklip bat (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez) egiteko. Ekinari batu zaizkion musikarien artean, besteak beste, Maite Arroitauregi (Mursego), Aitor Gorosabel (Su Ta Gar) eta Asier Serrano eibartarrak daude. Kantua Joserra Senperenak sortu du eta hitzak Edorta Jimenez idazlearenak dira. Horrekin batera "crowdfunding" kanpaina abiarazi dute karena.eu atarian, grabazioaren gastuei aurre egiteko dirua bartzeko asmoz.



## Antzerki Jardunaldietarako sarrerak salgai

Martitzenean aurkeztu zuten Antzerki Jardunaldien 39. edizioa Miguel de los Toyos alkateak, Patxi Lejardi Euskara eta Kultura zinegotziak, M<sup>a</sup> Jose Telleria Foru Aldundiko Kultura Zuzendariak eta Juan Ortega Eibarko Antzerki Jardunaldien arduradunak. Hogei talde ezberdinek hogeitabi funtzio taularatuko dituzte otsailaren 12an hasi eta martxoaren 16ra bitartean. Egitaraua Giza Estatuaren XIV. edizioarekin abiatuko da, baina irekiera ofiziala "Buena gente" antzezlanaren taularatuko duen Veronica Forqué antzezleak emango dio, Coliseoan. Betiko lez, talde eta lan guztiak "kalitatezkoak" izango dira eta euskal antzerkigintzak ordezkari zabalak izango du.

Asteburuan ekingo zaio sarreraren salmenta bereziari, zapatu eta domekan Untzagako jubilatutako etxean (10:00etatik 16:00etara) eta astelehenean Coliseoan, 10:00etatik 14:00etara. Hortik aurrera Coliseoko leihatilan ohiko ordutegian erosteko aukera egongo da (astelehenean, 19:00etatik 20:00etara eta barixakuetan 21:00etatik 22:00etara). Eta bihurtik aurrera interneten ere salduko dituzte, [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) helbidean. Bestalde, gogoan izan Kaixo Kultura bonoarekin 15 euroko deskontua eskuratu daitekeela.



Sostoaokoe hasiko dute emanaldia, zortzi abestirekin.

## Bogoroditsie eta Sostoa abesbatzen kontzertua

Astelehenean Durangoko Bogoroditsie eta Eibarko Sostoa abesbatzek Gabonetako kontzertua emango dute elkarrekin, 20:00etatik aurrera San Andres elizan. Eibartarrekin batera etorriko den taldea Durangon 1993an sortutako ganbera-abesbatza da eta sari ugari jaso ditu jaialdi eta lehiaketetan.

Eibartarrek hasiko dute emanaldia, honakoak abestuta: "Olentzero" (J. Ozeinart), "Responsorio de Navidad" (A. Donostia), "Es müssen sich freuen" (F.E. Niede), "Hodie Christus natus est" (F. Poulenc), "Oi Betlehem" (A. Donostia), "Txamarra txartxo bat" (J.M. Zubiria), "Haur txiki ta eder" (P. Aranaz), "Hirur erregerekin" (J.M. Zubiria). Jesus Mari Sagarnek eta Mari Karmen Etxebarriak zuzenduko dute kontzertua eta Isabel Laspiurrek pianoarekin lagunduko die. Durangoko abesbatzak, berriz, "Four motets; Gloria Patri, Adoramus Te, Domine miserere, Ave Maria" (R. Tas), "Peccavi" (M. Praetorius), "Ubi Caritas" (O. Gieilo) eta "Pater noster" (R. Martinkenas) abestuko ditu, Jon Ugarrizak zuzenduta.

**Aguiñaspi**  
TABERNA

Abenduan 15 urte bete ditugula aprobezkatuz, bezero guztiak zoriondu nahii ditugu eta Urte Berri On opa diegu.

Eta urtarrilaren erdialdean taberna itxiko dugunez, zuekin urte hauetan bizi izandakoa bihotzez eskertu.

**Isasi, 31** Egutegia 06.00etatik aurrera  
**943 207 737**

GABON Zoriontsuak!! EIBARKO PREZIORIK OPIENEKIN!

KAFETEGIA OKINDEGIA

**SUTLINDO**

Azido hialuronikoko ile-tratamendu berriak

**Khôl**  
Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

## Herrixa Dantzan Elgetan

Abenduaren 27an Herrixa Dantzan Gabonetako dantzaldia hartuko du Elgetako Espaloia kafe antzokiak, Txertubi taldearen eskutik, 19:00etatik aurrera (doan). Dantza eta musika tradizionalekin osatutako emanaldia izango da eta Arkaitz Miner (arrabita, perkusioa, ahotsa), Txus Aranburu (soinua, perkusioa, ahotsa), Amaiur Cajaraville (kontrabajua, ahotsa) eta Patxi Monterok (dantza gidaria) jardungo dute.

## Ermua Antzokirako eskaintza


2016ko urtarriletik maiatzera bitartean Ermua Antzokian eskainiko diren ikuskizunen eskaintza prest daukate. Sarrerak aurretik erosteko BBK-ko orotako kutxazain-etara edo [www.bbk.es](http://www.bbk.es) helbidera jo daiteke edo, bestela, Lobiano Kultur Gunera joan (Goienkale, 10), astelehenetik barixakura 09:00etatik 21:00etara.

## Bertso Txapelketako finala

Abenduaren 19an 17:00etan Donostian, Ilunben jokatu den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean Agin Laburu, Alaia Martin, Arkaitz Oiartzabal "Xamoa", Beñat Gaztelumendi, Iñaki Apalategi, Jon Maia, Oihana Iguaran eta Unai Agirre bertsolariek jardungo dute eta saiorako sarrerak erosteko bertsosarrerak.eus helbidera jo daiteke (arruntak 20 euro balio du, gazteenak 10 euro eta bazkideenak 15 euro). Finalean nagusitzen den bertsolariari txapela Inaxi Etxabe bertsolari zumaiairak jantziko dio, "plaza ukatu zitzaion emakume bertsolarien belaunaldi oso baten ordezkari gisa".



## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## hildakoak

- Julian Arzuaga Calvo. 89 urte. 2015-XII-9.
- Enrique Sarasketa Pildain. 84 urte. 2015-XII-9.
- Fco. Javier Baglietto Berraondo. 74 urte. 2015-XII-11.
- Juanita Igartua Agirre. 93 urte. 2015-XII-13.
- Juan Antonio Casado Plaza. 92 urte. 2015-XII-13.
- Leonor Olabarri Garaigordobil. 79 urte. 2015-XII-15.

## jaiotakoak

- Mohamed Abida. 2015-XII-2.
- Paul Mutilba Zubizarreta. 2015-XII-6.
- Yousra El Azmani Srassi. 2015-XII-7.
- Urko Lapeyra Ibarra. 2015-XII-11.
- Luka Del Rio Carracedo. 2015-XII-12.
- Jule Garcia Davila. 2015-XII-12.
- Gorka Lopez Lopez. 2015-XII-13.

## farmaziak

- Barixakua 18  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
  - Zapatua 19  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
  - Domeka 20  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
  - Astelehena 21  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
  - Martitzena 22  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
  - Eguaztena 23  
EGUNEZ Larramendi (Calbeton, 19)
  - Eguena 24  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
  - Barixakua 25  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
  - Zapatua 26  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
  - Domeka 27  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
  - Astelehena 28  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
  - Martitzena 29  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- GAUEZ BETI -2015EAN-  
Elorza (J. Gisasola, 18)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak..... 112
- Pegora.....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuua .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 03 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## SUDOKUA

2		3		8		7
	3	1	7			
		9	6			
			5		2	1
9						5
	5	8		2		
				8	5	
				7	4	6
4	6			3		2

2	9	8	1	7	3	4	6	5
4	5	6	9	8	2	7	3	1
7	1	3	6	4	5	8	2	9
8	3	9	4	1	6	5	7	2
5	2	4	7	3	8	9	1	6
1	6	7	2	5	9	7	8	4
6	8	2	5	9	7	1	4	3
9	7	1	3	6	4	2	5	8
3	4	5	8	2	1	6	9	7

AURREKOAREN EMAITZA

## Barixakua 18

### KENKO

**16:00/18:00.** Kirol ekintzak doan probatzeko aukera. Kenko osasun gunean.

### ARTISAU-AZOKA

**17:00.** XII. Gabonetako Artisau Azoka. Miren Narbaizaren kontzertua. Zuloagatarren, 5 behean.

### KONTZERTUA

**20:30.** Trio Medianoche taldearen emanaldia. 12 euro. Coliseoan.

## Zapatua 19

### ENTRENAMENDU-SAIOA

**10:00/13:00.** Spartan SGX eta Animal Flow, doan. Orbea kiroldegian hasi eta herriko kaleetan jarraituko dute, Urkizun Animal Flow saioarekin amaitzeko. Kenko osasun zentroaren eskutik.

### ANTZERKI SARRERAK

**10:00/16:00.** Antzerki Jardunaldietako lanetarako alde zurreko salmenta berezia. Untzaga jubilatuen etxean.

### GABONETAKO PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelenako Haur Parkea, 2-12 urte bitarteko umeentzat. Sarrera 3 euro (doan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin). Astelena frontoian.

### ARTISAU-AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00.** XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

### GABONETAKO TAILERRA

**17:00.** Apaingarriak egiteko. Sarrera doan. Armagintzaren Museoa.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30.** 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

### OLENTZERO

**18:00.** Olentzero eta Mari Domingi bisitan joango dira. El Corte Inglesean (beheko sarreran).

## Domeka 20

### ANTZERKI SARRERAK

**10:00/14:00.** Antzerki Jardunaldietako lanetarako alde zurreko salmenta berezia. Untzaga jubilatuen etxean.

### ARTISAU-AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00.** XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

### TXISTULARIAK

**12:00.** Usartza Txistulari taldearen emanaldi laburrak herriko hainbat kaletan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30.** 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

## Astelehena 21

### ANTZERKI SARRERAK

**10:00/14:00.** Antzerki Jardunaldietako lanetarako alde zurreko salmenta berezia. Untzaga jubilatuen etxean.

### ARTISAU-AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00.** XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

### KONTZERTUA

**20:00.** Gabonetako kontzertua, Bogoroditsie (Durango) eta Sostoa abesbatzen eskutik. San Andres elizan.

## Martitzena 22

### IRAKURKETA-KLUBA

**19:00.** Helduen gaztelarazko irakurketa kluba: "*Un viejo que leía novelas de amor*" (Luis Sepúlveda). Portalean (ikastaro gelan).

### ARTISAU-AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00.** XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

### GAZTELEKUA

**17:00/20:30.** Orduetegi berezian zabalduko dute Indianokuan.

## Eguaztena 23

### ARTISAU-AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00.** XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

### GAZTELEKUA

**17:00/20:30.** Orduetegi berezian zabalduko dute Indianokuan.

## Eguena 24

### GABON TRAIL

**08:30.** II. Gabon Trail: 13'5 kilometroko ibilbidea (2 ordu eta erdi / 3 ordu). Irteera eta amaiera Klub Deportiboan.

### ARTISAU-AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00.** XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

### OLENTZERO

**12:00.** "*Zatoz Olentzerorokin abestera!*" kalejira, Urkizutik abiatuta (Arragueta, Coliseo, Errebal, anbulategia, T. Etxebarria, Untzaga). J.B. Gisasola Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren ikasleek eta Eibarko Kantuzaleak eta Kaleetan Kantuz abesbatzek lagunduta.  
**12:30.** Olentzerok umeei harrera egingo die udaletxean.

## Zapatua 26

### GABONETAKO PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelenako Haur Parkea, 2-12 urte bitarteko umeentzat. Sarrera 3 euro (doan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin). Astelena frontoian.

### ARTISAU-AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00.** XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

### GAZTELEKUA

**17:00.** Eskulanak. Indianokuan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30.** 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

### BAIETZ MUGITU!!!

**18:00.** Eibarko Sarek antolatuta, giza proba erronka: txiki eta haundi, neska eta mutil, denak batera, 700 kiloko harriari tiraka. Trikitilariak, bertsolariak, pintxo-potea... Untzagan.

### PALESTINAREN ALDE

**18:00/20:00.** Argazki eta bideo erakusketa eta eskolarako materialaren salmenta. Palestinari Laguntzeko Komiteak antolatuta. Untzagan.

### BERTSOAK

**19:00.** Bertso-saioa. Bertsolariak: Manu Goigana (Irun), Gemma Urteaga (Beasain), Izar Mendiguren (Laudio) eta Aimar Goenaga (Eibar). Gai-jartzailea: Ion Martinez. Akara tabernan.

## Domeka 27

### GAZTELEKUA

**17:00.** Eskulanak eta Play/Wii. Indianokuan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30.** 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

## Astelehena 28

### GABONETAKO PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelenako Haur Parkea, 2-12 urte bitarteko umeentzat. Sarrera 3 euro (doan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonoarekin). Astelena frontoian.

### ARTISAU-AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00.** XII. edizioa. Zuloagatarren, 5 behean.

### ANTZERKIA

**17:00.** "*Txanogorritxo*" umeendako antzezlanak, Gluglu Producciones taldearen eskutik. 5 euro. Coliseoan.



**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kittolko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, **JULEN!**, gaur zazpi urte betetzen dozuz-eta. Patxo potolua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANE Bastida**, eguaztenian 10 urte!! egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **JUNE Sukia**, haraiñegun bost urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, **AITOR**, hillaren 25ian bost urte egingo dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, Pabloren partez.




Zorionak, **Mª VICTORIA Vila Chaves**, hillaren 16xan bost urte egin zenduaz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NORA**, astelehenian sei urte egingo dozuz-eta! Muxu asko gure etxeko zorionarentzat!




Zorionak, **UNAI**, hillaren 24an bost urte egingo dozuz-eta! Muxu haundi bat amatxo, aitatxo eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, **LAIA**, datorren astelehenian hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **MALEN** Urizar Arruti, hillaren 15ian zazpi urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, **UR Agote** Gorostizaga, hillaren 8xan sei urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **ANDER**, hillaren 23an bost urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Amaiaeren partez.



Zorionak, **PELLO**, gaur zazpi urte egiten dozuz-eta. Ondo pasa zure eguna. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, **UNAX** (9 urte) eta **MARKEL** (4 urte), 20xan eta 27xan urtiak egingo dozuez-eta. Oso ondo pasa eta muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, **DONATA**, eguaztenian urtiak bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **EÑAUT** eta **JULENE**, zortzi eta hamar urte bete dozuez-eta! Etxeko guztien partez.



## erakusketak

Abenduaren 22ra arte

**Untzagako jubilatutako etxeko jostintza taldeko andre** egindakoen erakusketa. *Untzagako jubilatutako etxean.*

Abenduaren 31ra arte

**"Diseinuak" Bakarne Elejalderen** argazki-erakusketa. El Ambigú kafetegian.  
**Iñaki Campos-en "Metronomos"** argazki-erakusketa. Portalea tabernan.  
**Iñaki Campos-en rock-taldean** argazki-erakusketa. Ez Dok tabernan.

Urtarrilaren 3ra arte

**Alberto Ramirez eta Jon Errazu** artisten erakusketa. *Topalekuan.*

Urtarrilaren 10era arte

**Eibarko Klub Deportiboko argazki-taldearen** erakusketa. *Portalean.*  
**Durangaldeko Artisten Elkartearen** erakusketa. *Portalean.*

2016ko abendura arte

**Jose Luis Apraizen arma-bilduma** erakusketa. *Armagintzaren Museoa.*

## lehiaketak

**"ARATOSTEAK EIBARREN"**

**Kartel-Lehiaketa**

Lanak aurkeztea eta informazioa.  
Urtarrilaren 12ra arte, Pegoran.

## ikastaroak

**ARGAZKILARITZA (OINARRIZKOA)**

Noiz eta non: Urtarrilaren 11, 13, 18, 20, 25 eta 27an (astelehen eta eguaztenetan), 19:30etik 21:30era, Arrate Kultur Elkartearen. Irakaslea: Jose Luis Irigoien.

**Izen-ematea eta informazioa:**

Arrate Kultur Elkartearen bulegoan, 943202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidean (25 euro bazkideek, 30 euro bazkide ez direnek).



Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Erioxa). 4 logela, egongela, sukaldia, bi koma eta ganbara. Tel. 615-759399.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 689-571882.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 697-754174.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 661-377537.

### 3.2. Errentan

– Marbxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-101852 eta 631-282203.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 632-441528 eta 634-437852.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-070225.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein garbiketa-lanetarako. Tel. 632-704433.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-852956.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Lanaldi osorako eta baita asteburuetarako ere. Orduka. Tel. 722-554395.  
– Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. Esperientzia. Haur Hezkuntza ikasten eta ingelesa hitz egiten dut. Tel. 615-741668.  
– Gizarte Hezkuntza ikasi duen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu edo klaseak emateko. Tel. 630-815922.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa-lanak egiteko. Tel. 631-748977.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa-lanak egiteko. Tel. 632-454417.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko urtariletik aurrera. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-506763.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa-lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 677-736060.

– Neska eskaintzen da arratsalde edo gauz orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Gidatzeko kametarekin. Tel. 631-343232.

– Neska euskalduna eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.

– Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 653-010861.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 697-891070.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-748531.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta taberna lan egiteko. Tel. 631-962653.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko urtariletik aurrera. Interna. Tel. 631-062022.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Tel. 662-430951.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Interna. Tel. 632-408771.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Interna. Tel. 628-014327.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita gauz eta asteburuetan ere. Tel. 693-232959.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 602-172993.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauz eta asteburuetan ere. Orduka. Tel. 679-910991.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauz ere. Tel. 632-771519.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 629-817299.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-425686. Laura.

### 4.2. Langile bila

– Pertsona behar da astero goiz batean mugikortasun arazoak dituen emakume bati enkarguak egiten laguntzeko. Ezinbestekoa da autoa izatea. Tel. 943-202030.  
– Ileapaintzailea behar da. Tel. 619-928881.  
– Kamarera/o behar da asteburuetarako Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a. ofertaempleo.bar.eibar@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Katalan klaseak jasoko nituzke. Tel. 686-482364.

– Matematikako irakaslea behar da Batxilergo 1. mailako ikasle bati klaseak etxean emateko. Tel. 669-293462.

### 5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarretako klaseak ematen dira. 1 eta 3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.

– 1'50 metroko ohea salgai, gereziondoko egurrekin egindakoa. Egoera onean. 480 euro. Tel. 635-009554.

– Egongelako alfombra salgai. Egoera eta prezio onean. Tel. 606-882043.

– Ohe artikulatua salgai (1'05x2 m). Tel. 649-605857.

– Apal metalizatuak salgai, errobekin. Neurri guztietakoak. Oso merke. Tel. 688-678934.

### 6.2. Eman

– Mendiko bizikleta oparitzen dut. Tel. 666-444074.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Pirritx eta Porrotxen ikuskizunetan hainbat gauza agertu ziren: Monster High-en boltsa bat, emakumezkoaren jertse beltza, 2-4 urteko umearen sudadera urdin-grisa eta belarribabes larrosak. Jabeak ...eta kittol-tik pasa daitezke jasotzera. Tel. 943-200918.

– Arraten betaurrekoak topatu nituen kuadroan (zuri-beltzak) funda batean eta Udaltzaingoan laga ditut. Tel. 943-708424.

### 6.4. Bestelakoak

– Elkarre gastronomiko bateko kide izan nahiko nuke. Tel. 635-206864.

– Elkarre gastronomiko bateko kidea izatea nahiko nuke eta aukera desberdinak ikustea. Tel. 667-516350.

943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

# Hyundai Tucson Berria

## Aldatzea jarrera bat da.



#changeisgood

Aldaketa gure bizitzan zatia da. Sentsazio berriak aurkitzea eta une hunkigarriak bizitzea ahalbidetzen digu. Irudimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinu eta berrikuntza teknologikoek gidaritzaz gozatzeko zure era guztiz aldatzea ekarriko dute.

Esperimentatu aldaketaren indarra [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) helbidean

Tucson Berria **18.900€** tik aurrera



### OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO

#### ELGOIBAR

Olaso Polig., 17 **943 74 14 80**



Hyundai Tucson Gama

CO<sub>2</sub> Emisioak (gr/km): 119-175

Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,6-7,5

Tucson 1.6 GDI (131CV) 4x2 BD ESSENCE-rako gomendatutako prezioa, Penintsulan eta Balearretan (18.900€). BEZ, garrailoa, matrikula-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza, Hyundai Solución Plana eta Gobernuaren PIVE Plana barne (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak betetzeaz iraututa). Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 13.000€ko gutxienezko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatutako duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziak. 2015/12/31ra arte balioko du eskaintza honek. Erakutsitako modeloa: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziario lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduen baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo [hyundai.es](http://hyundai.es) helbidean.

# Pelikuletan bezala!

## NW YOUNG LIFE CAMP



3 aste FAMILIAN + aste 1 KANPAMENTUAN

SEATTLE/PORTLAND

3.995€

## HOMESTAY LINGUISTIC



4 aste FAMILIAN Ingeles intentsiboa!

SEATTLE/PORTLAND

3.795€

## NORTHERN CALIFORNIA ADVENTURE



4 aste FAMILIAN + KANPALDIA

SAN FRANCISCO

3.995€

## NW ADVENTURE CAMP



3 aste FAMILIAN + aste 1 ABENTURAZKO KANPAMENTUAN

SEATTLE/PORTLAND

3.995€

## MAINE ADVENTURE



4 aste FAMILIAN + ABENTURAZKO EKINTZAK

LEWISTON/PORTLAND

3.995€

Egonaldia familia batean!  
Prezioan dena barne dago!

**ADINA:**  
3. DBHtik  
unibertsitate 1. mailara

**DATA:**  
UZTAILEAN

[www.summerintheusa.com](http://www.summerintheusa.com)

Izena eman!

# vinos Solera Eibarresa

1939

Estrella Galicia 

## VIÑA POMAL ERRESERBA

1go Kutxa - 2 bot.  
Viña Pomal Centenario Erreserba + 2 kopa

2. Kutxa - 2 bot.  
Viña Pomal Erreserba + Vacu Vin

23,60€ bez-a barne



## MUGA ERRESERBA

2 bot. Muga erreserba  
+ 2 kopa Riedl Desgustazione

42,35€ bez-a barne



## ANNA BLANC DE BLANCS

2 bot. Ana Blanc de Blancs

18,10€ bez-a barne



## G&T SANTAMANÍA KOFREA

Bot. 1 70zl %41 - Santamania Premium London Dry Gin  
2x edalontzi  
1x Jigger  
1X Koilaratxo nahasgailua  
6X Premium tonica  
Lima & Limon

66,96€ bez-a barne



**GABONAK 2015**  
**ZORIONAK**  
**ETA**  
**URTE BERRI ON**

## Primeran Pasa Jaiak

Astelehenetik ostiralera 8:30etik - 12:30era eta 15:00etatik - 19:00etara  
Abenduak 19, larunbata 10:30etik 13:00etara  
24 eta 31 goizak ZABALIK egongo da

ZATOZ GURE GABONETAKO PROMOZIOAK EZAGUTZERA!!!

[www.vinosconsolera.com](http://www.vinosconsolera.com)